

Harribitxia

Usandizagaren 'La Llama' operaren berrestreinaldia.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Juan Jose Ocón. **Andra Mari Abesbatza.**

Zuzendaria: Jose Manuel Tife.

Bakarlariak: Sabina Puértolas, Mikeldi Atxalandabaso, Damián del Castillo, Elena Barbé, Maite Maruri. **Lekua:** Gasteizko Principal Antzokia. **Data:** martxoaren 16a.



Usandizaga hil zenetik 100 urte bete dira aurten.

JOSE MARIA USANDIZAGAREN heriotzaren mendeurrena ospatzen da aurten, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa omenaldi polita egin dio bere azkeneko obra, *La Llama* izeneko opera berrikusi, berrestreinatua eta grabatzearekin. Askorentzako sorpresa izan da konpositore donostiarraren lan zoragarri hau, benetan oso gutxitan antzestu baitzen: Donostian eta Madrilan 1918an eta Bartzelonan 1932an. Handik aurrera, auskalo zergatik, kasurik ez.

Horrexegatik, ideia ezin hobea izan da obra hau berreskuratzea eta publikoari eskaintzea, zinez lan distiratsua delako eta, beraz, beste ospe bat merezi duelako. Juan Jose Ocón egin du berrikuspen kritikoa, eta, emaitza ikusita, lan txalogarria egin du, dudarik gabe. Horrez gain, berrestreinaldi honen zuzendaria izan zen, eta nabaritu zen lanaren ezagupen sakona, talde osoaren onena ateratzen jakin baitzuen.

Oso gaztea zen Usandizaga opera hau burutu zuean, 27 urte besterik ez zuten –28 urterekin hil zen–, baina aparteko heldutasun musikala erakusten du partiturak. Orkestrazio koloretsua, harmonia klasikoa baina modernitate puntu bat duena, inpresionismoaren ukituarekin, folklorea eta klasizismoa uztartzen dituen dotoreziak... hori guztia aurki dezakegu Usandizagaren musikan, eta bereziki opera honetan.

Berrestreinaldian interprete eraginkorrak aurkitu genituen. Sabina Puértolas soprano nafarrak Tamar pertsonaia elegantea egin zuen. Oso ahots malgua du, fina. Garrantzi handia ematen die ñabardurei eta horrek interesa ematen dio bere interpretatzeko erari. Bikain. Mikeldi Atxalandabasok, Adrianen rolean, intentsitatea adierazi zuen uneoro, pertsonaiaren alde dramatiko nabarmenduz. Elena Barbé donostiarraren kantu delikatua oso ondo egokitzen zitzaion uraren izpirituaren pertsonaiari. Agian taxu pittin bat gehiago ondo etorriko litzaiotke eta jestualitatea gehiago lantzea. Miren Urbieta Vegak paper txiki bat egin zuen, narratzailearena hain zuzen ere, baina denbora gutxian garbi utzi zuen bere kantu distiratsua. Eta gainontzeko bakarlariek, Damián del Castillo, Fernando Latorre, Maite Maruri eta Xabier Anduaga gazteak, kalitate bokala eskaini zuten. Andra Mari Abesbatzak, ohi bezala, biribiltasuna eman zion osotasunari. Ea hemendik aurrera gehiago entzuten dugun obra xarmagarri hau. ■

Montserrat Auzmendi



Ekain berri



**Euskal
Kulturaren
sustraiak**

Sarreren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11